

7. ORDENANTZA

UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.

I- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Udal honek, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta eskatzen ditu udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik. Ordenantza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta eskatzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

II- ZERGAGAIA

3. artikulua

Udal jabari publikoaren erabilera pribatiboak edo haren aprobetxamendu bereziak erazten du zergagaia.

III- SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua

1.- Honako hauek izango dira zergapeko subjektu pasiboak: pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 33. artikuluan aipatzen dituen entitateak, baldin eta beren onura partikularrerako modu berezian gozatu, erabili edo aprobetxatzen badute udal jabari publikoa, hau da, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 20.2 artikuluan jasotzen dituen moduetan.

2.- Espaloietan egokitutako ibilgailu sarrerak modu pribatiboan erabiltzeagatik edo haien aprobetxamendu bereziagatik ezartzen diren tasetan eta, oro bat, sarrera horiek eraiki, mantendu, aldatu edo kentzeagatik ezarritakoetan, zergadunaren ordezkotzat hartuko dira sarbide hori duten finka eta lokalen jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei ordainarazi ahal izango dizkiete kuotak.

3.- Estatuak, Autonomia Elkartek eta Toki Erakundeak ez daude behartuta herri jabariaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziarengatik tasak ordaintzera, baldin eta zuzenean ustiatzen dituzten komunikazio zerbitzu publikoen aprobetxamenduak badira eta, bereziki, herritarren segurtasunarekin edo defentsa nazionalarekin zer ikusia badute.

5. artikulua

Lizentzia eskuratzen duen titularrak ordaindu beharko du tasa, edo hala badagokio, aprobetxamenduaren onuradunak.



IV- SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK

6. artikulua

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

V- ZERGA OINARRIA

7. artikulua

Eranskinean jasotakoaren arabera, udal jabari publikoaren erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia egiten deneko unitate bakoitza izango da zerga oinarria.

VI- KUOTA

8. artikulua

1.- Eranskinean ezarritakoaren arabera, zerga kuota finkatzeko tarifa bat aplikatu, espresuki erabakitako kopuru finko bat ezarri edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliko dira.

2.- Erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziak udal jabari publikoa suntsitu edo hondatu egiten duenean, onuradunak, behar den tasari aurre egiteaz gainera, osorik ordaindu beharko du berreraikuntza edo konponketa gastuen kostua, eta horren zenbatekoa aldeztatik jarri beharko du..

Kalteak konponezinak badira, udalak kalte-ordaina jasoko du. Kalte-ordain horrek suntsitutako ondasunaren pareko balioa izango du edo bestela, ondasunari sortutako kaltearen parekoa.

Udalak ezingo ditu barkatu, ez osorik ez zati batean, atal honetan aipatzen diren kalte-ordainak edo diru-ordainketak.

VII- SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

9. artikulua

1.- Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik exijitzen den tasa ondorengo bi uneotan sortuko da, zergagaiaren izaeraren arabera: erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasten denean (eta orduan zenbateko osoa edo haren zati bat aurrez ordaintzea exijitu daiteke), edota, bestela, jarduketari edo espedienteari hasiera ematen dion eskaera aurkezten denean (kasu horretan, jarduketa ez da egingo edo espedientea ez da tramitatuko dagokion ordainketa egiten ez bada).

2.- Tasaren izaera materialak sortzapena aldizkakoa izatea exijitzen duenean, sortzapen hori urte bakoitzeko urtarrilaren lehen gertatuko da eta zergaldiak urte naturala hartuko du. Erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasi edo utzi egiten denean, ordea, zergaldia egoera horretara egokituko da eta kuota ere portzionalki moldatuko da, Eranskinean ezarritakoari jarraituz.

3.- Subjektu pasiboarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik jabari publikoa erabili edo aprobetxatzeko eskubidea gauzatu gabe geratzen bada, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.



VIII- LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

10. artikulua.

Udalak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du, eta likidaturiko kopurua eskudirutan ordainduko da, Eranskinak ordainarazpen bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

IX- TASEN KUDEAKETA

11. artikulua.

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzerakoan, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

X- AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza hau eta bere Eranskina, 2016ko urriaren 18an egindako Osoko Bilkuran onartu zituen Udalbatzak behin betikoz, 2017ko urtarrilaren 1ean jarriko dira indarrean, eta hala jarraituko dute aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean.

XI. ALDAKETEN HISTORIALA

OSOKO BILKURAREN DATA	INDARREAN SARTU DEN EGUNA	ALDAKETAK
2002.10.31	2003.01.01	6 eranskinetako tarifak
2003.10.30	2004.01.01	6 eranskinetako tarifak
2004.05.10		5. eranskina
2005.10.28	2005.01.01	6 eranskinetako tarifak
2005.02.24		4. eranskina
2005.10.27	2006.01.01	6 eranskinetako tarifak
2006.12.26	2007.01.01	6 eranskinetako tarifak
2007.12.26	2008.01.01	6 eranskinetako tarifak
2008.12.29	2009.01.01	6 eranskinetako tarifak
2009.12.28	2010.01.01	2. eranskinetako kontzeptu bat aldatu da; gainontzekoa mantendu
2010.10.27	2011.01.01	Eranskin guztietako tarifak
2011.12.27	2012.01.01	Eranskin batzuk aldatu dira
2012.12.20	2013.01.01	Eranskin batzuk aldatu dira
2013.10.29	2014.01.01	Eranskin batzuk aldatu dira
2014.10.28	2015.01.01	Eranskin batzuk aldatu dira
2015.10.20	2016.01.01	Eranskin batzuk aldatu dira
2016.10.18	2017.01.01	Ez da aldatzen



1 ERANSKINA

ERABILERA PUBLIKODUN LURRETAN ZANGAK ZABALDU EDO LUR AZPIA AZTERTZEKO PROBAK EGITEAGATIK, ZEIN BIDE PUBLIKOAN ZOLADURA EDO ESPALOIAK ALDATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA

1.- Udalak ez du lizentziak emateko obligaziorik erabilera publikodun lurretan zangak zabaldu edo lur azpia aztertzeke probak egiteko eta errepide publikoan zoladura edo espaloiak aldatzeko. Aitzitik, Udalak, aurrez ezarritako arauen arabera eta herriko interesen alde, lizentziak eman, atzera bota edo zenbait baldintzarekin onartu ahal izango ditu.

2.- Dagokion baimena emandako momentuan bertan hasten da zergak ordaintzeko obligazioa.

3.- Aurrez aipatutako baimenak jaso dituztenek, finkatutako eskubideak ordaintzeko obligazioa izango dute.

4.- Ondorengo tarifen arabera kobratuko da tasa:

- Lur azpia aztertzeke, zanga zabaltzeko edo zoladura aldatzeko egindako metro lineal bakoitza (ondorengo tarifaz gain) **1,76 €**
- Aipatutako obrak egiten hasi eta bukatu arte pasatutako egun bakoitzeko **3,37€**

2 ERANSKINA

ERABILERA PUBLIKODUN LURRAK ZENBAIT MATERIALEKIN (MERKANTZIAK, ERAIKUNTZARAKO MATERIALA, OBRA-HONDAKINAK, HESIAK, PUNTALAK, ESKORATZE TRESNAK, ALDAMIOAK ETA ANTZERAKOAK) HARTZEAGATIKO TASA

€/ m²/ eguneko

* Edozein material:**3,14 €**

* Jendearen edota ibilgailuen joan-etorria oztopatzen
ez duten hesi eta aldamiok.....**0,57 €**

* Jendearen edota ibilgailuen joan-etorria oztopatzen duten
hesi eta aldamiok.....**3,13 €**

* Puntalak eta eskoratzetresnak.....**3,13 €**

*Kontenedoreak: **€/ eguneko**

7 m² arte**6,44 €**

7 m² -tik gora**10,32 €**



3 ERANSKINA

ERABILERA PUBLIKODUN LURREN AZPIA HARTZEAGATIKO TASA

1.- Tasa honen objektu izango da bide publikoaren lur azpia eta udal ondasun publiko hauek okupatzea:

1. Hodiak eta kableak.
2. Erregai edo beste likido batzuetarako tanke edo deposituak.
3. Transformagailu elektrikoak.
4. Lur azpiko kamara eta korridoreak, eraikinen behe solairuetako zabalgunek edo handitze huts soila badira ere.

Tasa honekin likidatutako eskubideek ez daukate zerikusirik “eraikuntza, instalazio eta obren ordenantzaren” arabera likidatu behar direnekin, zeintzuk aldeztu aurretik ordaindu beharko baitira.

2. Tarifak.

- a) Azalera-aprobetxamenduetan, lur azpiaren balioaren %10 ordaindu beharko da metro karratu edo zati bakoitzeko.
- b) Luzetara egindako aprobetxamenduetan, tarifak honakoak izango dira metro lineal edo zati bakoitzeko:

* Hodiak, **0,634 euro**

* Kableak, **0,634 euro**

3.- Kuotak.

- a) Kuotak urtero eskatuko dira.
- b) Lehenengo urteko kuotak lizentzia jasotzerakoan ordaindu beharko dira, eta hurrengoak, indarrean dagoen Dirubiltzarako Araudi Orokorrean finkatutako epeetan.

4 ERANSKINA

BIDE PUBLIKOAREN LURRA, HEGALKINA ETA LUR AZPIAREN ERABILERA PUBLIKO EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIKO TASA

a) Dirua irabazteko helburuarekin mahaiak eta aulkiak jartzea.

- Zortzapen aldia, urtebete gutxienez, m² bakoitzeko **16,95 €**

b) Kioskoak jartzea.

- Egunkariak, tabakoa, loteria eta antzekoak saltzeko kioskoak. Hileko, **18,02 €**



- Freskagarriak, ardoa, garagardoa eta merienda edo antzekoak emateko mahaiak, karroak edo antzekoak dituzten kioskoak (jabeek matrikula industrialak badute). Hileko, **18,01 €**

- Oinarri minimoa, m² eta urteko **46,36 €**

c) Postuak, barrakak, zirkuak, salmenta kaxetak, ikuskizunak edo atrakzioak jartzea, **89,92 €**

d) Herriko jaietan barrakak eta postuak jartzea:

Prezioak kokagunearen arabera dira eta bi aukera daude:

A) Herriaren erdialdea (Hirigunea, Dorleta auzoa eta Udal pilotalekuaren ingurua.)

B) Herriaren erdialdetik kanpo.

INSTALAZIO MOTA	UNITATEA	KOKAPENAREN ARABERAKO TASAK	
		A	B
Txapel eta antzekoen salmenta	eguna	31,34	17,43
Tonbolak, tiro-kasetak eta antzekoak	m ²	19,42	7,92
Zaldiko-maldikoak eta antzekoak	m ²	9,24	5,32
Autotxoke eta antzekoak	m ²	9,24	5,34

e) Bestelakoak, eguneko: **8,21 €**

f) Hornidura zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresek bide publikoaren lur, hegalkin edo azpi-lurraren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezia egiteagatik tasa. Zerbitzu horiek herritar guztiei edo herritarren gehiengo bati eragiten badiote, enpresa horiek urtero herrian fakturatzeko diru sarrera gordinen %1,5 ordaindu behar dute.

Energia elektrikoa banatzen duten enpresen kasuan, diru sarrera gordintzat hartuko dira udalerrian energia elektrikoa saltzetik ateratzen dutena, ondorengo kontzeptu guztiak barne direlarik: potentzia, energia, errektibo eta ordutegi diskriminazioagatik osagarriak, neurgailuen alogera eta hartune eta loturak egiteko eskubideak. Salbuespen bakarra izango dira BEZ zergari eta fidantzei dagozkien diru sarrerak. Kontzeptu horiek guztiak aplikagarriak izango dira bai goi eta bai behe-tentsioa hornitzean.

TARIFA HAU APLIKATZEKO ARAUAK: Ekitaldiaren lehen lau hilabeteen barruan enpresek udalerrian lortutako diru sarreraren aitorpena aurkeztu behar dute, aurreko urteko diru sarrera gordinen berri zehatza emanaz.

Aitorpen horrekin batera enpresaren kontabilitate-laburpena aurkeztu behar da eta hala badagokio, baita Udal Administrazioak eskatutako bestelako dokumentazioa ere.

Udal Administrazioak tasa zehaztu eta behin-behineko kobrantza egingo du, eta hurrengo lau urteren barruan aukera izango du ordaindu beharreko kopurua zuzentzeko. Epea igarota, behin betikotzat hartuko da.

g) Banketxeek edo beste erakunde, enpresa eta abarrek fatxaden aprobetxamendua egitea (kutxazain automatikoak, vending eta abar) hainbat produktu banatzeko.



- Instalazio bakoitzeko (instalaziotzat jendeari zerbitzua emateko puntu independente bakoitza hartuz):**1.120 €** urteko edo urte zatiko.

5 ERANSKINA

IBILGAILUAK ESPALOIETATIK SARTZEAGATIK ETA APARKALEKU ESCLUSIBORAKO

EDO MERKANTZIEN ZAMAKETARAKO BIDE PUBLIKOA ERRESERBATZEAGATIK

ORDAINDU BEHARREKO TASA

1. 1.- Lokal komertzial edo industrialetarako, edo *JEZen alta emanda egotea eskatzen dutenentarako erreserbak, metro lineal/urteko:

- Egun osoa**75,85 €**
- 12 ordu arte**37,87 €**

2. Garaje erabilera duten lokaletarako erreserbak, metro lineala/urteko:

- 9 ibilgailura arte**36,61 €**
- 10-25 ibilgailu artean**56,81 €**
- 25 ibilgailu baino gehiago**75,88 €**

3. Zamilan egiteko erreserba iraunkorrak, metro lineala/eguneko:

- 6 ordu arte/eguneko**0,312 €**
- 6 ordutik gora/eguneko**0,382 €**

1. Noizbehinka gerta daitezkeen beharrek eraginda
gune-erreserbak, metro lineala/eguneko**0,805 €**

TARIFAK APLIKATZEKO ARAUAK: Eskatzailearen kontura izango dira pasabideak egin, berritu, kendu eta aparkalekuak erreserbatzeagatiko gastuak, eta baita horiek seinaleztatzekoak ere.

*JEZ: Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga

6 ERANSKINA

MERKATUAN POSTUAK JARTZEAGATIKO TASA

Metro karratu eta eguneko **0,78 euro.**

Gutxienez luzerako 3 metro lineal ordaindu beharko dira postu bakoitzeko.

Gutxienerako tasa hiru hilabeteari dagokiona izango da.

Kobrantsa, gutxienez, hiru hilabete behin egingo da.



Postua argi publikoaren sarera lotzen denean, 28,77 euro kobratuko dira hiruhilero kontsumo horregatik.

7 ERANSKINA

ZALDIBAR ANTZOKIA KULTURARAKO, EKITALDI POLIFUNTZIONALETARAKO, AZOKETARAKO ETA EKITALDI PRIBATUETARAKO ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK

EGITATE ZERGAGARRIA.

Tasa honen egitate zergagarria da Zaldibar Antzokiaren aprobetxamendu berezia edo erabilera pribatiboa, eta baita erabilpen horri lotutako udal zerbitzuak ematea ere.

SUBJEKTU PASIBOA.

Subjektu pasiboak izango dira, zergadun gisa, antzokiaren erabilera pribatiboa izateko baimena jaso duten edo baimena eskatu gabe antzokia erabili edo aprobetxatzen duten pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 36. artikuluan aipatzen dituen entitateak.

SALBUESPEN ETA HOBARIAK

Honako hauek ez dira tasapean egongo:

- 1.- Udalak babestutako edo diruz lagundutako ekintzak.
- 2.- Udalarekin hitzarmen bidez egindako ekintzak edo ikastetxeek egindakoak.
- 3.- Eskoriatzan egoitza soziala duten irabazi asmorik gabeko fundazioek eta elkarteek antolatutako ekintzak, interes orokorreko helburuak badituzte eta ekintza horiek fundazioaren edo elkartearen helburu sozialari lotuta baldin badaude.
- 4.- Era berean, ez dute tasarik ordaindu beharko ere alderdi politikoei eta hautesle-elkarteek eskatutako ekitaldiei.

ZERGA KUOTA

Eskatuko den zerga kuota gutxieneko kopuru bat izango da, erabilera mota edo izaeraren eta egoeraren arabera metatuko diren koefizienteak aplikatuz.

tarifa: Horretarako, ondorengo tarifak aplikatuko dira:

Egun erdi..... 300 €

Egun osoa 400 €

Jaiegunetako erreserba bereziak (jaiegunetako lana larunbateko edo jai bezperako 22:00etatik jaieguneko edo igandeko 22:00etara egindako da) 30 euro orduko tarifa bereziarekin grabatuko dira, ezarritako tarifari gehituko zaiona.

Prezioan Zaldibar Antzokia irekitzeko langilea sartuta dago.



Prezioan aretoan erabilgarri dagoen ekipamendu teknikoa eta ikus-entzunezkoa sartuta daude, eta baita ikus-entzunezko baliabide horietarako teknikari bat ere.

Ekitaldiak hala eskatuz gero, zerbitzurako beste langile batzuk edo ekipamendu batzuk beharko balira, horiek eskatzailearen kontura izango dira.

Egun erdiko ordutegian 4 orduko erabilpena sartzen da; egun osoan, 8 ordukoa.

Espazioa muntatzeko eta desmuntatzeko denbora erabilpen denbora bezala hartuko da.

SORTZAPENA

Tasa sortzen da eta ordaindu beharra dago erabilera pribatiboa hasitakoan, eta ondorio horretarako ulertuko da lizentzia ematerako unean hasten dela, lizentzia eskatu baldin bada.

Erabilera pribatiboa egon bada lizentzia eskatu gabe, tasaren sortzapena erabilera horren hasieran izango da.

Eskaerak, gutxienez, ekitaldia baino 15 egun natural lehenago egin behar dira, eta baimena ez da emango hilabete bat baino gehiagoko aurrerapenez. Hilabete baino gehiagoko denboraz egindako erabilera eskaerak erabilera erreserbatzat hartuko dira, udal programazioaren menpe geldituko dira, eta ekitaldia baino hilabete lehenago tramitatuko dira benetako eraginarekin.

Erreserbak bertan behera utzi nahi izanez gero, idatziz egin beharko da. Baimen eskatzaileak eskarian atzera eginez gero:

- Ekitaldia baino 5 egun edo gutxiago. Tarifa aplikatuta dagokion kuotaren %25a izango da kitatu beharrekoa.

- Ekitaldia baino 6 egun eta hilabetearen artean. Tarifa aplikatuta dagokion kuotaren %10a izango da kitatu beharrekoa.

ORDAINKETA

Ordainketa udal diru zaintzan egin beharko da, gutxienez, ekitaldia baino 7 egun lehenago.

Epe horretan ez balitz ordainduko, baimena baliogabe geldituko da. Baliogabetze hori isilbidez bertan behera utzitakotzat joko da, eta dagokion kuotaren %25a ordaintzeaz gain, Udalak kalte-ordainak erreklamatu ahal izango ditu.